

ZER SAIHESTU BEHAR DUZU?

- **Nik biberoia erabiltzea edo pureak jatea maiztasunez**, mastekatzeak artikulazioari laguntzen baitio.
- **Nik txupetea erabiltzea edo erpurua zurrupatzea (ondorio okerragorekin)**, otitisaren arriskua errazten baitu eta aho-barrunbearen deformazioan ere, mihiaren posizioan, hortz-hozkada egokian eta ahozko mezu ulergarrien ekoizpenean eraginez.
- **Sudurreko higieine eskasa**. Garrantzitsua da mukiak ongi garbitzen niri irakastea, arnasketa naturala sudurreko arnasketa baita.
- **Elkarreragin-uneak distrakzioekin**, hala nola, sakelako telefonoak, telebista edo bestelako hondo-hotsak bazkari-orduetan, jolas-orduetan,...
- **Nire ordezt hitz egitea, nire nahiak eta beharrak ezagutzen dituzula suposatuz**. Atzamarrarekin edo keinuekin zerbait eskatzen dudanean, ahoz adieraz dezadan saiatu beharko zenuke, aukerak emanez edo galderak eginez: "Zer nahi duzu?", "Autoa ala pilota nahi duzu?".
- **Azkarregi hitz egitea eta ez ematea erantzuteko astirik**.
- **Gure gorputzak ere komunikatzen duela kontuan ez hartzea**. Garrantzitsua da koherentzia egotea gure gorputzak komunikatzen duenaren eta gure hitzek esaten dutenaren artean.
- **Pantailen erabileraren inguruko aholkuak kontuan ez izatea**:
 - Espainiako Pediatria Elkarteak (AEP), **6 urte baino lehen pantailak ez erabiltzea** defendatzen du (smartphone, tableta, ordenagailua, telebista,...)
 - **Salbuespen gisa**, teknologia erabil genezake urrun dauden gertuko senide edo pertsonekin harremanetan jartzeko, eta **beti zure laguntzarekin**.
 - **Ez erabili tresna horiek nire haserreak saihesteko edo portaera onaren sari gisa**.
 - **Nik imitatuko zaitut**. Niretat, honetan, inportanteagoa da egiten ari zarena esaten duzuna baino.

NOIZ KEZKATU BEHAR DUZU?

Haurrok erritmo ezberdinetan garatu ditzakegu mintzamina eta hizkuntza gaitasunak. Dena den, zailtasunak detektatzeko kontuan hartu behar da bilakaera edo programazio natural bat jarraitzen dugula.

2-3 urte bitarteko tarte honetan kezkatu beharko zenuke baldin eta:

- Otitisa izaten badut maiz.
- Ez baditut agindu sinpleak ulertzen.
- 24 hilabeterekin nire ingurune koentzat ulergarriak diren 50 hitz baino gutxiago ekoizten baditut edo ez baditut bi hitz elkartzen enuntziatu bat osatzeko.
- Nire hizkuntzaren garapenean geldialdia edo atzerapena egon bada. Inguruko jendeak ez badu nire hizkera ulertzen.



NORI ESKATU LAGUNTZA?

Baldin baduzu nire entzumenari edo mintzamenari buruzko kezkarik, hurrengo tokietan laguntza eska dezakezu:

- Zure Osasun Etxeko pediatriari
- Haur eskolan
- Arreta Goiztiarreko Zerbitzuan



HIZKUNTZAREN GARAPENA ERRAZTUZ

2 - 3 URTE BITARTE



ZER ULERTZEN DUT?

- "Kendu berokia eta jantzi zapatilak" bezalako agindu konposatuak jarraitzen ditut.
- Ireki-itxi bezalako kontrako hitzak ulertzen ditut; handi-txiki; gora-behera,...
- Azkar ulertzen ditut hitz berriak.

NOLA MINTZATZEN NAIZ?

- Hitzak erabiltzen ditut ezagunak diren pertsonak, lekuak, gauzak eta ekintzak izendatzeko. 24 eta 36 hilabete artean, hiztegiaren hazkundeak aparteko erritmoan egiten du aurrera. 200-300 hitzetatik 1000 hitzetara pasa naiteke.
- Bi eta hiru hitz edo gehiagoko esaldi errazak erabiltzen ditut gauzak eskatzeko eta horietaz hitz egiteko.
- Zer da? Non dago? Nor da? galderak egiten ditut.
- Jolasean hitz egiten dut eta, adibidez, animalien hotsak, autoen klaxonak eta abar imitatzen ditut.
- Gela berean ez dauden gauzei buruz hitz egiten dut.
- Barruan, gainean eta azpian bezalako hitzak erabiltzen ditut.
- Ni, zu, nirea, zurea bezalako izenordainak erabiltzen ditut.
- Beren ohiko ingurukoak ez diren pertsonak ulertzen dute esaten dudana.

EGOERA ELEBIDUNETAN

Emaidazu beti hizkuntza bakoitzerako eredu egokia:

- Erosoen sentitzen zaren hizkuntzan hitz egin beharko zenidake, afektiboena eta komunikatiboena izan zaitezkeen hizkuntzan.
- Ez zenidake "nahasian hitz egin beharko", bi hizkuntzatarako hitzak eta egiturak aldi berean nahastuz.

ZER BEHAR DUT ZUK EGITEA?

Hizkuntza beti ikasten da beste pertsona batekin edo batzuekin komunikazioaren bidez. **Interakzioa eta imitazioa** hizkuntzaren jabeakuntza zuzentzen duten oinarriko mekanismoak dira. Beraz, **garrantzitsua da**:

- **Nire interesak identifikatzea**: interakzioa sustatzen duten objektu eta egoera motibagarriak.
- **Nire ekimenak aprobetxatzea**, entzun eta egoki erantzunez, beti ere **eredu zuzena eskainiz, esamoldeak zabalduz eta berrantolatuz**. "Begira, autoa!" "Bai, amaren autoa da".
- **Nirekin asko hitz egitea**: egiten dugunari eta egiten dutenari hitzak jarritz, egingo duguna aurreikusiz, egin duguna laburbilduz,...
- **Aktiboki entzutea**: esaten dizudanari balioa emanez. Kontatzeko gauzak izatea bezain garrantzitsua da nori kontatu izatea.
- **Eguneroko uneak aprobetxatzea**: bainatzea, jantzea edo jatea bezalakoak, egoera horien propioa den **hiztegia** azpimarratzeko, **elkarriketak ezartzeko** eta **lotura afektiboak estutzeko**.
- **Nire jolasak eta eguneroko zereginak partekatzea**: mahaia jartzea, sukaldatzea, erosketak egitea, etab. eta azaldu diezadazu zergatik gertatzen diren gauzak eta zergatik egiten diren.
- **Ahozko aginduak erabiltzea, eta** modu jakin batean jarduteko **egokia dena justifikatzea**. Ez dadila izan ekintza soilik nire jokabidea erregulatzen duena (eskua hartu, ukitu, heldu, etab.).
- **Hizkuntzarekin jolastea**: irakatsi asmakizunak, abestiak, errimak,...
- **Liburutegi publikoak bisitatzea** nirekin **eta ipuinak ikustea**.
- **Etxean eta eskolan liburuak eskuragarri izatea** nik har ditzan.
- **Egunean gutxienez 15 minutu erreserbatzea ipuinak niri kontatzeko edo irudi-liburuak eta argazki-liburuak nik ikusteko**, ikusten dena eta egiten dena izendatuz.

Elkarrekin irakurtzeak asko laguntzen dit:

- **Hiztegia areagotzen**. Garrantzitsua da istorioari buruzko galderak egitea eta nire galderei eta oharrei erantzutea.
- **Munduari eta pertsonari buruzko ezagutzak eskuratzen**. Lotu istorioetan kontatzen dena nire bizitza errealeko esperientziekin.
- **Liburuak nola erabiltzen diren eta nola irakurtzen diren ulertzen**. Ilustrazioak eta hitzak seinalatuz, ikusiko duzu erlazionatzen hasiko naizela.
- **Irudimena aberasten**.
- **Esperientzia atseginaz gozatzen**, beti gogoratuko dudana.
- **Irakurketarekiko jarrera positiboa garatzen**.
- **Une intimoak eta maitasunez beteak sortzen**.